



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZ OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

FILOSOFIAREN HISTORIA

HISTORIA DE LA FILOSOFÍA

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

EZAUGARRI OROKORRAK:

Azterketak hiru galdera ditu. Lehenengo galderan, testu filosofiko baten ulermena landuko da. Bigarren galderan, ikasleek disertazio filosofiko bat idatzi beharko dute. Hirugarren galderan, auzi teorikoei erantzun beharko diete.

1.- TESTU-ULERMENA:

Ikasleek A eta B aukeren artean hautatu beharko dute, eta dagokion pasartea laburtu, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. Galdera honek puntu bat balioko du eta oinarritzko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

2.- DISERTAZIOA.

Ikasleek planteatzen zaien gai bati buruzko disertazio bat idatzi beharko dute. Idatzia testuinguru historikoan kokatzeko, tesi bat emango zaie eta galdera bat edo bi proposatu. Ikasleek tesiaren aldeko eta kontrako argudioak eman beharko dituzte, historian zehar izan diren ikuspegi ezberdinak erabiliz eta euren lana biribildu beharko dute ondorio eta iritzi pertsonal batekin. Galdera honek lau puntu balioko du, eta oinarritzko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

3.- FILOSOFIAREN HISTORIA BERRIKUSTEN.

Ikasleek proposatzen zaizkien lau galderetatik BI garatu beharko dituzte. Galdera honek bost puntu balioko du (bi puntu eta erdi galdera bakoitzak) eta oinarritzko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

OHARRAK:

Blokeak curriculumean agertzen diren hauek dira:

A. Filosofiaren sorreratik Grezian, aintzinaroaren amaierara..

B. Erdi Arotik Europako Modernitatera.

C. Modernitatetik postmodernitatera.

ZUZENTASUN ORTOGRAFIKOA:

Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu bat arte.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZ OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

FILOSOFIAREN HISTORIA

HISTORIA DE LA FILOSOFÍA

1. TESTU-ULERMENA: Hautatu A edo B aukera, eta laburtu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu).

A AUKERA

“Eichmann ez zen ergela. Buruarinkeria hutsak –ergelkeriarekin inola ere ezin berdindu den gauza– bultzatu zuen garai hartako gaizkile handienetako bat bihurtzera. Eta hori “hutsala” baldin bada, baita xelebrea ere, munduko borondaterik onenarekin ere ezin baldin bazaio Eichmanni deabruzko sakontasunik egotzi, hala eta guztiz ere, ezin esan genezake gauza arrunta denik. (...). Errealitatetik horren urruti egotea, buruarinkeria hori, kaltegarriagoa izan daiteke giza naturak, ausaz, berezkoak dituen sen gaizto guztiak batera hartuta baino, eta huraxe izan zen, hain zuzen ere, Jerusalem eman zen irakasbidea”.

Hannah Arendt, *Eichmann Jerusalem*. “*Post Scriptum*”.

B AUKERA

“Hau da, drama ez da eremu sexual batean gertatzen; sexualitatea, gainera, sekula ez da izan ez destino baten definigarria, ez giza portaeren berezko giltza, baizik eta agerian uzten du egoera oso bat, egoera hori definitzen lagundu ondoren. Sexuen borroka ez da zuzenean ondorioztatzen gizonaren eta emakumearen anatomiatik. Egiaz, anatomia gogora ekartzen dugunean, segurutzat ematen dugu Ideien zero denboragabea guduari ari direla dudazko esentzia hauek: Femeninitasun betierekoa, Maskulinitasun betierekoa. Eta ez gara ohartzen borroka titaniko horrek bi molde guztiz desberdin dituela lurrean, zein bere garai historikoari dagokiona”.

Simone de Beauvoir, *Bigarren Sexua* (“Ondorioa”).

2. DISERTAZIOA: Ondoko tesitik abiatuta, eman itzazu tesiaren aldeko eta kontrako argudioak, eta biribildu zure idazlana ondorio batekin. (200-300 hitz. 4 puntu): Modernitatetik aurrera, ezagutzari buruzko galderak garrantzi berezia hartu zuen. Posible al da egia ezagutzea giza ezagutzaren mugak kontuan hartuta?



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZ OHIKOA

FILOSOFIAREN HISTORIA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

**3. Hurrengo galderetatik aukeratu bi eta garatu bakoitza 250 hitzetan.
(2x2,5 puntu).**

- Metodoa Descartesen arabera.
- Kant eta Ilustrazioa: arrazoimenaren erabilera publikoa eta erabilera pribatua.
- Nietzsche: Nihilismoa eta baloreen transmutazioa.
- Materialismo historikoa: egitura ekonomikoa eta superegitura.